



MERKATU SEGMENTAZIOA

Kubata makina sinple eta merke bat behar dutenak dira bezero nagusiak, hala nola tabernak, pub txikiak eta ekitaldi-antolatzaileak. Taberna eta pub txikiek zerbitzua azkartzeko eta edari koherenteak bermatzeko irtenbide sinple bat bilatzen dute, eta ekitaldi-antolatzaileek jardunaldi, festibal edo ekitaldi handietarako makina erabilerraz eta ekonomikoa nahi dute.

Bezero hauen ezaugarriak honakoak dira: demografikoki, ostalaritza eta ekitaldien sektorean aritzen diren pertsona edo enpresak dira, eta erabakiak kostuaren arabera hartzen dituzte. Geografikoki, kokapen biziak edo ekitaldiak antolatzen diren eremuetan kokatzen dira. Psikografikoki, kostu-eraginkortasuna eta erabilerraztasuna baloratzen dituzte, eta teknologia aurreratuaren ordez, irtenbide funtzionalak nahiago dituzte. Portaerari dagokionez, aurrekontu mugatuarekin ahalik eta zerbitzu eraginkorrena eskaintzea dute helburu.

Merkatuan bi motatako espazioak identifikatzen dira: alde batetik, merkatu masiboa dago, taberna eta pub arruntak barne hartzen dituena, non kostu baxuko eta funtzionaltasun oinarritzkoarekin asebetetzen diren. Bestetik, merkatu segmentatua dago, bi azpisegmentu nagusirekin: taberna txikiak, bolumen txiki edo ertaina duten negozioak, eta ekitaldi-antolatzaile txikiak, ekitaldi puntualetarako irtenbide merke eta sinple bat bilatzen dutenak.

Bezeroak bi taldetan sailka daitezke: erabilera intentsiboa dutenak eta erabilera esporadikoa dutenak. Erabilera intentsiboa dutenak dira taberna eta pub txikiak, egunero makina erabiltzen dutenak. Erabilera esporadikoa dutenak, berriz, ekitaldi puntualak antolatzen dituztenak dira, alokairu edo erosketa aukera ekonomiko baten bila dabilzanak.



KUBAKINA

**Arkaitz Osa, Ander Susperregi,
Unax Aramburu eta Aimar Larrañaga**